



**Begarako Udala**  
EUSKARA

**2015**  
**KOLDO ELEIZALDE LEHIAKETAK**  
**XXX. edizioa**  
**BERGARAKO UDALA. EUSKARA BATZORDEA**

**2015**  
**KOLDO ELEIZALDE LEHIAKETAK**  
**XXX. edizioa**

**OINARRIAK**

**1.- Partehartzaileak.** Lehiaketa honetan Bergaran jaiotakoek edo bizi direnek zein bertan ikasi edo lan egiten dutenek har dezakete parte bakarka zein taldeka.

**2.- Lan orijinalak.** Oinarri hauetako genero bakoitzari buruzko azalpenetan agertzen da aurkeztutako lanek orijinalak izan behar duten edo ez. Orijinalak izan beharreko lanen bat hala ez dela frogatuko balitz, lana aurkeztu duenak 50 euroko isuna ordaindu beharko dio Bergarako Udalari.

**3.- Lanak aurkezteko modua.**

**3.1.- Paperean bakarrik entregatu beharreko lanak** (ipuin idatzia eta komikia) kartazal handi batean bidali edo entregatu beharko dira Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuan eta kartazalaren kanpoko aldean honako hauek idatziko dira:

- "Koldo Eleizalde Lehiaketak" izenburua
- Lanaren generoa: ipuina, komikia...
- Kategoria: 1. kategoria, 2. kategoria...

Kartazal handian, berriz, honako hauek sartuko dira:

- a) Lanaren (idazlanaren, komikiaren...) ale bat. Lanean bertan ez da egilearen izenik jarriko; horren orde goitzen bat jarriko da.
- b) Beste sobre txiki bat, kanpoan egilearen izengoitia eramango duena eta barruan orri honetan dagoen "Egilearen datuak" atala, beteta.

**3.2.- Entzunezko edo ikusentzunezko euskarrian aurkeztu beharreko lanak** (Antzerkia, ipuin-kontaketa, txiste edo umorezko pasadizoa, bertsoa, elkarrizketa).

Genero bakoitzari buruzko azalpenetan agertzen da lanak nola aurkeztu behar diren.

**4.- Lanak aurkezteko epea eta sari-ematea.** Lanak entregatzeko epea apirilaren 16ra artekoa izango da.

Sariak, berriz, maiatzaren 30ean, larunbata, emango dira Udal Pilotalekuan, eguerdiko hamabietan.

**5.- Partehartzea saritzea.** Parte-hartzaile guztien artean euskarazko aldizkariaren harpidetzak zozkatuko dira.

**6.- Jabetza-eskubideak eta lanak berreskuratzea.** Aurkeztutako lanak Bergarako Udalaren eskuetan geldituko dira eta Udalak argitaratu ahal izango ditu.

Lehiaketara aurkezteak adierazten du aurreko paragrafoan aipatutako lanen eskubideak Udalari ematen zaizkiola eta, beraz, parte-hartzaileek ez dute lanok argitaratzeagatik sariaz aparteko beste ordainik izango.

Saritutako lanen egileek argitaratu ahal izango dute beren lana beste argitalpen batzuetan ere baina bertan adierazi beharko dute Bergarako Udalak antolatutako Koldo Eleizalde lehiaketan saritua izan dela.

**7.- Epaimahaia.** Epaimahaia Bergarako Udaleko Euskara batzordeak aukeratutako pertsonen osatuko dute.

**8.- Gutxieneko maila.** Epaimahaiaren iritziz, talderen batean aurkeztutako lanek, gutxieneko mailarik ez balute, sariak beste taldeetako gehituko litzazkieke, edota hurrengo lehiaketarako gorde.

**9.- Ikusentzunezko artxiboak erabiltzeko baimena.** Ikus-entzunezko generoetan, ulertuko da lanaren bidaltzaileak baduela bertan agertzen diren pertsonen baimena.

Edozein kasutan ere, lanean adinez txikiak agertzen badira, horien guraso edo tutoreek sinatutako baimen idatzia aurkeztu beharko da. Baimen hori eman ahal izango du ikastetxeak lehendik gurasoengandik lortua badu. Baimena emateko formularioa webgunean eskuratu ahal izango da.

### EGILEAREN DATUAK

Generoa (ipuina, bertso...):.....Kategoria.....  
 Egilearen izengoitia:.....  
 Lanaren izenburua:.....  
 Egilearen izen-abizenak:.....  
 Jaioteguna:.....  
 Helbidea:.....Telefonoa:.....  
 Ikastetxea:..... Emaila:.....

Orri honetako datu pertsonalak Bergarako Udalak behar bezala baimendutako fitxategietan sartuko ditu. Datu horiek udal kudeaketarako erabiliko dira bakarrik, baina beste administrazio publikoei edo hirugarrenei laga edo jakinarazi ahal izango zaizkie abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan, Datu Pertsonalen Babesari buruzkoan, aurreikusitako kasuetan.

Interesdunek datuak eskuratzeko, ezeztatzeko, zuzentzeko eta aurka egiteko eskubidea erabili ahal izango dute ondorengo helbidera zuzenduta: Bergarako Udala.- San Martín Agirre plaza, 1.- 20.570 Bergara.

### **IPUIN IDATZIA**

Gaia: librea.

Lanek orijinalak eta inoiz saritu eta argitaratu gabeak izan beharko dute.

Bost talde izango dira jaioturtearen arabera eta lanen luzera eta sariak hauek izango dira:

Kategoria	Jaioturtea	Luzera	1. saria	2. saria	3. saria
1	2007-08	1-2 orrialde	Ez da, berez, 1. , 2. eta 3. saririk bereiziko. Oparigaiz osatutako hiru sari emango dira.		
2	2005-06	1-2 orrialde	Ez da, berez, 1. , 2. eta 3. saririk bereiziko. Oparigaiz osatutako hiru sari emango dira.		
3	2003-04	1-2 orrialde	Ez da, berez, 1. , 2. eta 3. saririk bereiziko. Oparigaiz osatutako hiru sari emango dira.		
4	2000-2001-2002	2-5 orrialde	100 €ko bonoa	70 €ko bonoa	50 €ko bonoa
5	1999 edo aurretik	3-10 orrialde	250 €ko bonoa	200 €ko bonoa	150 €ko bonoa

Laugarren eta bosgarren taldeko lanak tarte bikoitzez makinaz idatzita aurkeztu beharko dira. Egile bakoitzak lan bakarra aurkeztu ahal izango du.

### **BERTSO EDO KOPLAK**

**Azalpena:** Bertsotzat hartzen dugu hemen gutxienez 4 oin dituena eta koplaztat gutxienez 2 dituena.

Gaia, neurria eta doinua libre izango dira hiru kategorietan.

Lanek orijinalak eta inoiz saritu eta argitaratu gabeak izan beharko dute.

Hiru talde izango dira jaioturtearen arabera eta bertso-kopurua eta sariak hauek izango dira:

Kategoria	Jaioturtea	Gutxieneko luzera	1. saria	2. saria
-----------	------------	-------------------	----------	----------

1	2001ean edo ondoren	2 bertso edo 4 kopla	Ez da, berez, 1. eta 2. saririk bereiziko. Oparigaiz osatutako bi sari emango dira.	
2	1997-98-99-2000	3 bertso edo 6 kopla	80 €ko bonoa	50 €ko bonoa
3	1996 edo aurretik	6 bertso edo 10 kopla	150 €ko bonoa	80 €ko bonoa

Bertso edo koplak entzutezko artxibo digitalean, MP3 formatuan, kantatuta aurkeztu beharko dira [www.bergarakoeuskara.net](http://www.bergarakoeuskara.net) webgunean horretarako gertatutako formularioa erabiliaz. Formularioaren helbide zehatza: <http://www.bergarakoeuskara.net/koldo-eleizalde-lehiaketan-parte-hartzeko-orria>.

Bertsoen testua ere txertatu beharko da webgunean. Egile bakoitzak lan bakarra aurkeztu ahal izango du.

### **KOMIKIA.**

Gaia: librea.

Lanek orijinalak eta inoiz saritu eta argitaratu gabeak izan beharko dute.

Hiru talde izango dira jaioturtearen arabera eta sariak hauek izango dira:

Kategoria	Jaioturtea	1. saria	2. saria
1	2003-04-05	Ez da, berez, 1. eta 2. saririk bereiziko. Oparigaiz osatutako bi sari emango dira.	
2	2000-2001-2002	80 €ko bonoa	50 €ko bonoa
3	1999 edo aurretik	140 €ko bonoa	80 €ko bonoa

**Aurkeztu beharreko lana.** Aurkeztuko den lanaren egitura eta tamaina librea izango da baina gutxienezko tamaina 29 x 10 cm-ko komiki tira izango da. Horretaz aparte, aukera ematen da aplikazio informatikoz sortutako komikiak aurkezteko eta kategoria bakoitzeko parte-hartzaile kopuruaren eta lanen kalitatearen arabera, bereiz saritu ahal izango dira eskuz egindako komikiak eta ordenagailuz moldatutakoak.

Egile bakoitzak lan bakarra aurkeztu ahal izango du.

Lehiaketaren helburu nagusietako bat komikien bidez ahozko berbeta lantzea da; beraz, ez da onartuko komiki muturik eta epaimahaiak lanak baloratzeko, bereziki baloratuko du komikietako testuen egokitasun eta adierazkortasuna.

### **INTERPRETAZIOA ETA KONTAKETA: IPUIN-KONTAKETA, ANTZERKIA, UMOREZKO PASADIZO EDO TXISTEAK**

Gaia: librea.

Iraupena: gutxienez, minutu bateko iraupena izan beharko du kontaketak. Horretarako nahi beste txiste edo kontakizun aurkeztu ahal izango ditu bakoitzak.

Lau multzo izango dira parte-hartzaileen jaioturtearen arabera:

Kategoria	Jaioturtea	1. saria	2. saria
1	2009an edo ondoren	Ez da, berez, 1. eta 2. saririk bereiziko. Oparigaiz osatutako bi sari emango dira.	
2	2003-2008	Ez da, berez, 1. eta 2. saririk bereiziko. Oparigaiz osatutako bi sari emango dira.	
3	1999-2002	200 €ko bonoa	150 €ko bonoa
4	1998an edo aurretik	300 €ko bonoa	200 €ko bonoa

Kategoria bakoitzeko parte-hartzaile kopuruaren eta lanen kalitatearen arabera, bereiz saritu ahal izango dira azpi generoak: ipuin-kontaketa, antzerkia eta txiste edo pasadizoak. Kasu horretan, sariok ere moldatu ahal izango dira.

**Lanak aurkezteko modua:** Lanak entzunezko edo ikus-entzunezko artxibo digitalean (formatuak: MP3, AVI, MP4 edo FLV) grabatuta aurkeztu beharko dira. Artxibook ahal den neurrian (Webgunea 250 Mb arteko artxiboak igotzeko prestatuta dago), sare bidez aurkeztea gomendatzen da [www.bergarakoeuskara.net](http://www.bergarakoeuskara.net) webgunean horretarako gertatutako formularioa erabiliaz. Formularioaren helbide zehatza: <http://www.bergarakoeuskara.net/koldo-eleizalde-lehiaketan-parte-hartzeko-orria>.

Artxiboa handia balitz eta webgunera jasotzeko grabazioaren kalitatea txikitu beharra balego edo bestelako arazorik balitz, CD edo DVDan aurkeztuko dira. Edonola ere, **lanaren eta egilearen datuak webguneko formularioan sartu beharko dira.**

Lehiaketaren helburua ahozketasuna lantzea da eta epaimahaiak lanak baloratzerakoan, kontaera edo antzezteko modua (ahots modulazioak, isiluneak, intonazioa, gorputz espresioa...) hartuko ditu, batez ere, kontuan. Arrazoi horregatik, ez da, antzerki muturik onartuko eta ez da baloratuko kontakizuna orijinala izatea.

Arrazoi horregatik, baliagarriak izango dira, lehendik egindako edozein grabazioaren birkontatzeak edo parodiak ere.

Edozein kasutan orijinala ez baldin bada, adierazi egin beharko da lanaren izenburua eta egilea, baldin badu.